

## Giza bilakaera

Gizakion portaera, afektibotasuna eta pentsamenduaren ezaugarri eta ahalmena, adinarekin batera aldatuz doazen giza-ezaugarriak dira. Aldakuntza-prozesu honek [giza bilakaera psikologiaren](#) arloa zehazten du (2) eta berau ulertzeko zenbait paradigma eta teoria agertzen dira.

Idazki honetan zehar giza-bilakaeraren ezaugarriak, berau ulertzeko proposatzen diren teoriak eta, zehatzago, gizakion pentsamenduren garapenaren karakteristikak definituko dira.

### Giza-bilakaeraren ezaugarriak

Giza bilakaeraren ezaugarriak ondoko hauek dira:

- Bizitza osoan zehar gertatzen da eta, hortaz, jarraitua da.
- Egungo esperientziak ulertzeko ahalmena lehenago esperientzietan oinarritzen da, beraz, giza bilakaera metakorra da.
- Konplexutasunaren aldetik, beronek areagotzeko joera du, halako moldez non ahalmen, gaitasun eta abileziak hobetuz doazen denboraren poderioz.
- Antolakuntzaren aldetik, giza garapena organizatua eta orokortasunetik zehatzetara antolatuz doa; hots, hasiera batean pertzepzioak, sentimenduak, pentsamenduak eta akzioak globalak dira eta denbora aurrera joan ahala doiagoak egiten dira.
- Giza bilakaeraren arlo ezberdinak (kognitibo, sozial, motore, linguistikoak,...) elkarren pean daude; izan ere, arlo bateko eskuraketa, beste arloen garapenarekin ere lotuta dago. Honen ondorioz, garapena holistikoa da.

Giza bilakaera fenomeno holistikoa izanik ere, praktikan hiru arlotan bereizten da:

- Arlo biologikoa; hau da, hazkundera eta, oro har, gorputz atal ezberdinen aldakuntza.
- Arlo psikosoziala: emozioak, pertsonalitatearen ezaugarriak, pertsonen arteko erlazioak eta testuinguru sozialen eragina.
- Arlo kognitiboa: komunikazio, ikaskuntza eta pentsamendurekin lotuta dauden prozesuak.

### Giza-bilakaeraren gaineko teoriak

Giza bilakaeraren arloan, ekarpen genetikoa, ingurunea eta bi faktore hauen arteko eragina azpimarratzen dira garapenaren sustatzaile gisa. Hala ere, bilakaerari buruzko ikuspegi ezberdinak daude ondoko paradigma hauetan laburbil daitezkeenak:

- Teoria biologikoak: Hauen barruan bi paradigma nagusi agertzen dira: [Arnold Gesell](#)-en heltze teoria eta teoria etologikoak. Lehenengoari dagokionez, giza bilakaeraren oinarri madurazio biologikoa eta faktore genetikoak hartzen dira eta inguruneak faktore horien eragina gidatu, ahalbideratu eta moldatu besterik ez du egiten.

Teoria etologikoak [Konrad Lorenz](#) eta [Niko Tinbergen](#)-en eskutik garatu ziren. Autoren hauen ikuspegitik giza portaeraren hastapenak animalien portaeran ere hauteman daitezke eta oinarri genetikoa eta portaeren egokitze-balioan datza bilakaera ulertzeko gakoa. Ikusmolde etologiko honek izan duen ekarpenik nabarmenetakoa ama eta umeen arteko [atxikimendu fenomenoaren](#) garrantzia ulertze eta balioestea (arlotan honetan, [John Bowlby](#) da

autore azpimarragarriena).

2. Teoria psikodinamikoak: Teoria hauen perspektibatik gizabanakoak ingurune sozialarekin duen interakzioan datza garapena eta berau ondoko bi muturren arteko tentsioan agertzen da: barne instintu edo berezko joerak eta ingurune sozialaren exigentziak. Hala, gizabanako zuzen eta artez garatzeko etengabe konpondu behar du bere barne irrikak muga sozialekin talka egitean sortzen diren gatazka intrapsikikoak.

Teoria mota hauetan, bereziki, [Freud](#)-en teoria psikosexuala eta [Erikson](#)-en teoria psikosoziala aurkitzen dira.

3. Ikaskuntzaren teoriak: Paradigma honetako ikusmoldeek pertsonalitatearen barne ezaugarriei bainoago gizabanakoarengandik kanpo dauden faktoreei so egiten diete eta, ondorioz, testuinguruaren ezaugarriak, arauak, sariak, gatziguak eta errefortzu sozialak bezalako aldagaiak aintzat hartzen dira, bereziki, gizakiaren garapena ulertzeko.

Teoria hauek guztiak estimulu eta erantzunen arteko loturan dautza eta prozesu jarraitu gisa ulertzen dute giza bilakaera (hau da, eten ala etaparik gabe). Hauen artean bi teoria-multzo bereizten dira: [baldintzapenaren teoriak](#) eta [ikaskuntza sozialarenak](#).

4. Teoria kognitiboak. Teoria hauek gogamenaren garapen, egitura eta funtzionamendu dute jomuga eta, teoria hauen erroan bi planteamendu nagusi daude: Piageten garapen kognitiboaren teoria eta informazioaren prozesamenduarena.

- 4.1. [Jean Piaget](#)en kezka pentsamenduaren eraikitze prozesua karakterizatzean zetzan eta, hartara, haurtzaro eta nerabezaroaren garapen kognitiboa ikertu zuen.

Piageten teoria, [konstruktibismoan](#) kokatzen da; izan ere, paradigma honek azpimarratzen du gizabanakoak, esperientzia dinamikoaren bidez, ezagutzaren eragile gisa duen zeregina. Pertsonen errealitatearen gainean duten pertzepzioa eta inteligentzia (hau da, errealitatea ulertzen ahalbideratzen duen gaitasuna) elkar eraikitzen duten fenomenoak dira, elkarren arteko eraginpean daudenak.

Ikusmolde honetan akzioa da garapenaren gakoa eta horregatik, jaiotzatik bertatik umeek akziorako prestatuta daude. Umeen hasierako akzioak, errealitatearekin interakzioa bideratzen dutenak, [erreflexuak](#) dira (zurgapen ala oratzekoak, esaterako) baina geroan, gero eta akzio boluntarioagoak eta zehatzagoak egiten dira, errealitatea ikuspegi berrietatik ezagutzea posibilitatzen dutena.

Piageten teoriaren puntu garrantzitsua *eskemen kontzeptua* da. Eskemak, akzio edo jokamolde estrukturatuak dira; hain zuzen ere, ezagutzaren eskuratzea ahalbideratzen dutenak.

- Bestalde, eskemak zenbait ekintzaz osatuta egon daitezke baina beti orden edo antolamendu iraunkorrean agertzen dira. Hortaz, egoera batetik antzeko den beste batera aplikatu ohi dira (esaterako, zurgapen erreflexua erabilia izaten da edoskitzeko baina geroan, umeak objektu berriak ezagutzeko ere erailtzen ditu).
- Eskemak inkontzientek dira baina hauen bidez umeek antolatzen ditu objektuetan eta ingurunean egiten dituen ekintzak.
- Eskemak izan daitezke motoreak ala barnekoak. Azken kasu honetan subjektuak ez du ekintza motorra fisikoki egiaztatzen baina bere kognizio-sistemak ekintza horren irudikapena dauka, akzioen ondorioak aurreikusten errazten dituenak.

Honen ildotik, Piaget, *akziorako eskemak* eta *errepresentazio eskemak* bereizten ditu. Bi urtetatik aurrera umeak barneratuz doa akziorako eskemak eta honek zera dakar: bi urte arte umeak errealtatea ezagutzen ditu bere ekintza sentsore-motorren bidez (zurgatu, miazkatu, koskatu, atzeman, bota ala herrestatuz) baina geroan barne eskemek (mintzatu, sailkatu, ordenatuz ala irudikatuz) sustatzen dute errealtatearen ezagutza.

Piageten teorian beste kontzeptu garrantzitsuak ondoko hauek dira: asimilazioa eta moldatzea, alde batetik, eta egokitze eta oreka, bestetik. Hala, esperientzia berri bat umeak dituen eskemetan ondo artekatzen ez denean, **desoreka** kognitiboa sortzen da. Eskema ez egokien ala zaharren **moldaketa** izanez gero, esperientzia berriaren barneratze edo **asimilazioa** izango da. Subjektuak ingurunearekin izan duen ekintza berria asimilatzeke umearen egitura kognitiboa **egokitu** behar izan da, azken finean, garapena ekarriko duena.

Desorekek barne antsia eta herstura ekar dezakete; izan ere, subjektuaren egitura kognitiboak zailtasunak ditu errealtatearen aspektu batzuk artekatzeke baina desoreka hauek dira, egokitze-ahalmena gainezkatzeko ez bada, Piageten iritiz, hazkunde intelektuala suspertzen dutenak.

- 4.2. Informazioaren prozesamenduaren teoria. XX.mendeko bigarren erditik aurrera ikertzaileak konturatu ziren *ordenagailuaren* funtzionamendua izan zitekeela analogia egokia gogamenaren egitura eta jardunbidea ulertzeko. Era honetan, berez teoria osoa izan gabe ere, bilakaera psikologiaren barnean ikuspuntu berria sortu zen (informazioaren prozesamenduarena) [Noam Chomsky](#) eta [George Miller](#) bezalako autoreek bultzatu zutena.

Ikuspegi berri honen arabera, kanpotik jasotzen den informazioak subjektuaren sistema kognitiboan ibilera jakin bat egiten du, urteen poderioz aldatzen ez dena (adinarekin batera eraginkortasuna hobetuz joan arren). Eskema hau honako atalok ditu: (a) estimuluen jasotzea, (b) estimuluen erregistroa, (c) ezagutzaren osaketa, (d) erantzunen sortzea eta (e) kontrol-prozesuak.

Aurreko atal horiek laburki azaltzeko, gorputzeko zentzumenek betetzen dute lehenbiziko zeregina (hau da, estimuluen jasotzea) baina subjektua ez da bilduriko estimulu ororen jabe; izan ere, subjektuak esanguratsutat jotzen duen informazioa baino ez du aintzat hartzen. Bigarren parte hau informazioaren iragazi-sistema da, hain zuzen ere, estimulu inportanteak erregistratzen dituena.

Informazio iragazia epe motzeko memoriara (ala lan-memoria ere ezagunera) pasatzen da non zehetasun handiagoz aztertua izaten da (gainerako datu ala informazio atalak ahazten dira). Prozesamendu hau kontzientea da eta unean uneko ekintzak erabakitzeke baliagarria suertatzen da. Lan-memoriako datu batzuek iraungi epe motza dute baina beste batzuk epe luzeko memoriara pasatzen dira.

Lan epeko memoriaren kapazitatea oso mugatua bada ere, epe luzeko memoria nolabaiteko datu biltegi iraunkorra da eta hortxe luze iraun dezakete datu esanguratsuek eta informazioak. Bi memoria mota hauek ezagutzaren euskarria osatzen dute.

Sistema kognitiboaren azken atalak, erantzunen sortze-prozesuak eta [kontrolerako prozesuak](#) dira. Lehenengok pentsamendua eta jokabidea taxutzen dute, arestian aipaturiko ezagutzaren euskarrian erroturik eta bigarrenek, sisteman barrena doan

informazio-fluxua erregulatzen dute, atentzio selektiboa, informazioa erauzteko estrategiak, problemak ebazteko estrategiak, motibazioa eta abarren bitartez.

Esan bezala gogamenaren aribidea ulertzeko ikuspegi honen arabera, sistema kognitiboaren funtzionamendua eta barne atalak beti dira berberak, edozein adinetan ere eta, ondorioz, ez dator bat giza bilakaeran aldiak ala etapen egotearen ustearekin. Hau baino gehiago sistema osoaren eraginkortasuna finduz doala irizten da eta subjektuak adinarekin batera bereganatuz doa ez barne eskema ala egitura berririk (Piageten aldea) baizik eta, estrategia eta trebetasun berriak eragin positiboak dituztenak memorian, ikaskuntzan eta problemen ebazpenetan.

Aurreko ildotik, adinarekin batera hobetuz doaz, esaterako, zentzumenen zorrotzetasuna, eta estimuluak eta informazioak aztertu, kodifikatu, integratu eta elkartzeko abilitatea. Era berean, adinarekin batera epe luzeko memorian datu kopurua handitzen da eta, honen ondorioz, subjektuak informazio gehiago eta konplexuago du eskura, ikaskuntza prozesuak ondu eta bizkortzen dituena.

5. Teoria testuinguru-kognitiboak: Teoria hauek nabarmentzen dute subjektuaren bizitza sozialeko eskenatoki ezberdinek eta beraiek dakartzaten aztura, jarrera eta usteek eragiten dutela ezagutzaren egite-prozesua eta gaitasun intelektualenen garapena. Bereziki bi teoria aipa daitezke: [Lev Vygotsky](#)-ena eta [Urie Bronfenbrenner](#)-rena.

- 5.1. Vygotsky-k bereizten ditu bi psikologia-prozesu, oinarritzkoak (memoria eta arreta, esaterako) eta goi-mailakoak. Azken hauek gizakiei espezifikoki dagozkienak dira eta kultura bereganatzearekin batera garatzen dira. Hala, garaikideekin subjektuak bizitzen duen elkarrekintza, gaitasun kognitiboen abiapuntua da; testuinguru historikoa, bilakaera kognitiboaren norabidea ezartzen duena eta, azkenik, lengoia, kultura eta goi psikologia-prozesuak barneratzeko instrumentua. Hau dela eta, Vygotsky-ren ikuspegitik, esperientzia kultural ezberdinek giza garapen ezberdinak eragin ditzakete.

Goi psikologia-prozesuen artean, batzuk kultura batean parte hartzearekin berez garatzen dira (esaterako, hizkuntza) baina beste batzuk barneratzeko (aurreratua deritzotenak) berariazko instrukzioa beharrezkoa da. Azken hauen artean pentsamendu zientifikoa eta idazkera daude eta heziketa xederako erakundea behar dute, eskola, hain zuzen ere.

Autore honen beste puntu garrantzitsua Garapen-Zona Hurrena kontzeptua da. Ideia honen bidez nabarmentzen da trebezia, gaitasun eta ezagutza multzoa, umeak, oraindik, autonomoki martxan jartzen ezin duena baina heldu ala kide adituago baten laguntza eta gidaz irispidean eduki dezakeena. Zonalde ezegonkor baina posible horretan, irakasle, tutore, kide ala gurasoek umea gradualki gidatu eta motiba dezakete desafio kognitibo berriei aurre egin eta bere trebeziak autonomoki ibilarazten.

Vygotsky-ren ikuspegitik ikaskuntza eta garapena gauzatuko da umea, pertsona esanguratsu baten sostenguz, igarotzen lagundua izaten denean bere oinarritzko abilezietatik, gaitasun potentzialetara. Bi maila hauen arteko aldeak (hasierakoa edo basala eta potentziala) mugatzen du Garapen-Zona Hurrena eta hantxe gauzatzen da garapena.

Teoria honetan zehar egundoko garrantzia du lengoia eta pentsamenduaren arteko erlazioak. Vygotsky-en ustez bi prozesuok zeharo txirikordatuta daude eta nabarmentzen du mintzamenak barne kontzeptuen garapenean duen garrantzia.

Bronfenbrenner-ek *teoria ekologikoa* izenekoa garatu zuen eta honen arabera, elkarren artean eragin eta gainjartzen diren zenbait ekosistema ala giza testuingururen pean dago subjektua.

Ekosistema hauek ondoko hauek dira: (a) *mikrosistema*: hau da, subjektuarengandik hurbilen dauden lagun-hurkoak (familia, gela, adiskideak, lantoki, sinesmen-taldea eta abar...)(b) *mesosistema* non mikrosistemen arteko lotura aurkitzen diren (guraso eta irakasleen arteko bilerak, elizkizunak, lagun arteko festak eta txangoak eta abar.) (c) *exosistema*: hots, erakundeak mikrosistemen antolakuntza eragiten dutenak (esaterako, ekonomia, politika eta hezkuntza erakundeak) eta, azkenik, (d) *makrosistemak* non aurkitzen diren balore kultural eta soziala, gizarte bateko sinesmenak eta tradizioak. Azken hauek inguratu eta eragiten dituzte aurreko guztiak; izan ere, filosofia politiko, kultural eta ekonomikoa baldintzatzen dituzte.

Batzuetan *makrosistemak* ere kausi daitezke gizarte barruan aurkitzen diren talde erlijioso, etniko eta kulturaletan ala sozietateko klaseak, kastak ala komunitateetan, subjektua ere zeharo eragiten dutenak.

Bronfenbrenner-en iritziz ezinezkoa da ulertzea ume baten garapen kognitiboa aintzat hartu gabe subjektua eragiten duten sistema edo testuinguruak. Hala, esaterako, haur-eskolan umeek adierazten duten ikaskuntza eta egokitze-maila familiaren egoerarekin lotuta dagoela ikusten da; hau da, familian zenbat eta tentsio gutxiago izan, orduan eta egokitze prozesu hobe izango du umeak.

Dokumentu honetan adierazi bezala, giza bilakaera ulertzeko era bakarra ez dago; izan ere, fenomeno hau, gau egun, paradigma anitzekoa fenomeno da eta teoria bakoitzak aipatzen dituen aspektu ezberdinak aintzat hartzea eskatzen dituena.